



JON URSUE / ARGAZKOPRES

«Hobe da lehenik herri honetan sinisten dugunok ados jartzea»

Joseba Egibar • EAJren GBBko presidentea

Bi hilabete pasatu dira EAJk Gipuzkoan garaipena lortu zuenetik. Egibar GBBko presidentea garrantzia ematen die maiatzeko emaitzei, baina buruan gehiago ditu bakegintza eta EAEko estatus politiko berria.

Enekoitz Emaola Donostia

EAJren GBBko egoitzan BERRIAKO elkárrizketarako argazkiak ateratzen ari dela, Joseba Egibarrek (Andoain, 1959) aipatu du Donostiako alkate Juan Karlos Izagirre (Bildu) zela jaso zutela eraikin berriaren jarduera baimena, eta txantxa bat egin du horrekin. Pozik egoteko moduko emaitzak izan zituen EAJk joan den maiatzean Gipuzkoan ere. 120. urte bete du gaur alderdi jeltzaleak. **Hauteskunde gauean arnasa hartu al zenuen? Lau alkate baino ez zenituzten Gipuzkoan.** Hiru hitz esaten nizkien kideei: «Kristorena egin dugu». Urteeta-

ko lana laburbildu zuten emaitzek. 1986ko zatiketa oso larria izan zen alderdiarentzat, baina urteen poderioz ikusten genuen zatiketaren ondorioak gainditzen eta jendea biltzen ari ginela alderdiaren inguruan. Orain, ETaren ondorengo momentu honetan Gipuzkoa batean EAJtik aparte esparru abertzaleko gainontzeko guztiak bat eginda zeudela gu aurretik geratzea, kristorena izan dela uste dut. **Beste batzuetan baino apustu handiagoa egin al du GBBk aurreratu, baliabide gehiago jarrita?** Ez. Nik uste gehiago izan dela estrategia baten berrespena. Orain lau urte erabaki genuen Bildu ez

zokoratzea instituzioetan, hanka sartze bat zatekeelako. Politikan ezin da bidezidorreran ibili. Lau urteotan agintean izan da ezker abertzalea, eta kontrako ezterrira sartu zaio; ez du asmatu herri babesa kudeatzen. Baina ez da gaitasun faltagatik izan. **Zer gertatu zaio, zure ustez?** Ezker abertzalearen projektua estrategia politiko-militar baten barruan egon da, 2011ra arte, eta horrek kutsatu egiten du, nahitaez. Jarreratan ikusi da. Bizitzan ezin da horrela ibili; entzun egin behar da, harremanak landu, hitzarmenak lortu... **Zuek PSEekin egin duzue ituna.** Kudeaketarako itun bat da. Gi-

puzkoan ere gehiengoak bermatzeko ez genuen beste aukerarik. **Eroso al zaude itun horrekin?** Bai. **Joan den azaroan BERRIAN zenioen abertzaleen arteko «lehen ariketa praktikoak» maiatzeko hauteskundeen ondoren hasi behar zirela zeure iritzian.** Hori esan al nuen, hortaz... **Nafarroari buruz ariko zinen...** Hala izango zen... **EAJ-PSE itunak eragingo al du EAEko estatus berria egitean?** Ez. **Urteak aste honetan aitortu du EAJ-PSE «ardatzean» eraiki nahi duela estatus berria.** Nahi bai... Alderdi sozialistak bi

erabaki estrategiko hartu ditu, egiturazkoak. Bata bakegintzako da, eta bestea, estatus politiko berriaren ingurukoa. Bakegintzan, 2006an Rubalcabarekin eta Egigurenekin-eta bazuten ETaren amaieraz posizio bat. Gero, saio hark porrot egin zuenean asmatu zuten Bateragune, eta ondorioak hor daude oraindik: bost kide kartzelan. Ordutik ETAK hartu ditu hartu beharreko erabakiak -hartzeko ditu beste batzuk; atzeratzen ari da, baldar samar dabil-, baina 2007tik aurrera alderdi sozialistak mendekuaren estrategia bat hartu zuen, eta orain esaten du ez dela sartuko bakegintza, bizkitetza, zoru etikoa eta istorio horie-

tan. PSOEek eta PPK garbi dute: zenbat eta beranduago gertatu ETaren amaiera, politikoki hobeto beraiantzat. Ramon Jauregik garbi utzi zuen Eusko Legebiltzarrean; esan zuen ez dizkiotela zabalduko erabakitzeo eskubideari ateak, konstituzioak ez duela ate hori zabalduko. Orain, esan zuen gehiengo handi batek demokratikoki eta etengabe prozesu bat eskatzen badu orduan negoziatu egin beharko dutela; baina bitartean, ez. PSE orain erakundeetara gobernatzera dator, baina saiatu-ko da EAJ politikoki kontrolatzen. **Badirudi EAEn harreman hori bost urtekoa izango dela gubiernez, hurrengo urtean izango baitira EAeko hauteskundeak, eta gobernu ituna egin dezakezue.**

Ikusiko dugu. Nik garbi dut hurrengo urtean berriro nagusi bi indar abertzaleak izango direla. **Eta?** Bakegintzan eta estatus politikoko aliantza estrategikoak lortuta, gobernarritasunerako alda-gaiak alda daitezke. Zeinek in lortu aliantzak? PSEk gurekin egin nahiko du.

EAJK? Jauzi bat eman nahi dugu. Ez gara hasiko autogobernuzuritzen.

Zer da jauzia ematea? Erabakitzeo eskubidearen bermea izatea. Hitzar daiteke zer ariketa zehatz egin, baina jauzia erabakitzeo edo autodeterminazio eskubidearen ingurukoa da.

Estatuarekiko haustura aukera izatea al da erabakitzeo eskubidearen bermea izatea? Niretzat hau da: prozesu politiko bat egitea, amaieran subjektu politiko berri bat sortzea, eta estatu-hori onartzea.

Subjektu politiko horrek nahi duena erabakitzeo? Bai.

Eta gero estatuak subjektu haren erabakia errespetatzeko? Hori da.

Espainiako konstituzio erreforman jasoko al lukete hori? Guk esaten duguna da: erreforma horrek emango al du subjektu politiko berriak sortzeko aukera, bai ala ez? Ezetzkoa bada, sasi-erforma bat izango da, ez baitio mui-nari helduko.

PSOEko idazkari nagusiarekin bidea ireki dute EBBk eta Urkulluk. Zuk aipatzen duzun horretaraino helduko al da PSOE? Niretzat, ez. Pedro Sanchezek atera du federalismo asimetricoaren gaia, baina ez du hezurramitu. Bere garaian Pasqual Maragall-ek esan zigun ahazteko hori, PSOEk lur azpian sartu zuela berak atara zuen formula hori. Begira Katalunian zer ondorio izan dituen.

Beraz, zein da EAJren posizioa? 2011n aldatu zuten Espainiako konstituzioa, abuztuko arratsalde batean. Guk autodeterminazio eskubidea proposatu genuen, eta kontra bozkatu zuten. Espainiak zintzo, benetan eta sakoneko gai- heldu eutsiko al dio erreformarako prozesu bati? Ez dut sinisten horretan. Geure indarretan gehi-ago sinisten dut. Guk herri hau sendotu egin behar dugu ekonomiatik, industriatik, kulturatik... Landu, landu eta landu, iritsiko delako momentua. Erreformari ateak zabaltzen-bazaizkio, hor egon behar dugu, orduan aurkeztuta gure kreditazioak.

Noizko EAeko estatus berria? Hurrengo legealdian egon daiteke. Hori litzateke logikoena, baina ez diot horri garrantzia ematen. Bakarren batzuk hasiko dira esaten EAJk 2016ko hauteskundeetarako ikur bezala erabiliko duela estatus politikoa. Zu benetan ez bazara ari, angaiuan ari bazara, herritarrek antzematen dizute hori.

Lehen, Katalunia aipatu duzu. Zer garrantzi ematen diozu?

Kataluniak dauka uneotan agenda politikokoaren gidaritzza. Gure etorkizunari begira erne egon behar dugu han gertatzen ari denarekin. Ez dezagun pentsa hura beste mundu bat denik. Errealitate ezberdina dela? Bai. Baina haiei ondo joaten bazaie, guri ondo joango zaigu; eta alderantziz. **Kataluniak independentzia aldarrikatzen bada, Jaureritzak aitortuko al du?**

Bai, eta Eusko Legebiltzarrak izango da lehenengo ganbera aitortzen Kataluniaren independentzia izatera. Gu ez gara NBEko kasko urdinar istorio honetan begirale bezala ibiltzeko.

Batzuek esaten dute Kataluniak independentzia aldarrika dezakeela, baina gauzatu ez, estatu egiturarik ez duelako, sortu nahian ari diren arren. Hego Euskal Herriak estatu egiturak badauzka, ezta? Zergak, adibidez. Objektiboki eta kualitatiboki gu baldintza hobeean gaude. Guk hemen dugun arazoa da indar abertzaleak nagusi izan arren azken hamarkada hauetan distantzia eta desberdintasun estrategikoak izan ditugula. Horiek gaintitu behar dira, konfiantza sortzeko aukera landuta. Inork pentsa al dezake ezker abertzaleak lor dezakeela erabakitzeo eskubidea duen estatus politiko berri bat EAJrik gabe? Ezetz pentsatzen dut. Eta EAJko bakarren batek pentsatzen al du hori lor daitekeela ezker abertzalek gabe? **Markel Olanok azkenaldian sarri esan du EAJren eta ezker aber-**

tzalearen arteko zubiak hautsita daudela. Hori Gipuzkoan izango da; izan ere, Araban eta Nafarroan gertatu dena...

Gipuzkoan ezker abertzalearen estrategiaren adierazpiderik zorrotzena ezagutu dugu. Konfiantza galdu da.

Gasteizen eta Nafarroan EH Bildu zuekiko ez al da eskuzabala izan?

Nafarroan inteligentziarekin jokatu du. Niretzat, hangoa izan da hauteskundeetako albistirik handiena. Eta bigarrena, Maroto kentzea: operazio politiko bat izan da Gasteizkoa, esanez elementu honek ez duela euskal politika berriro kutsatuko. Eta ezker abertzaleak bazekien Maroto alkate ez izateko aukera bakarra Urartan zela.

Alegia, zuek ez zenietela Larrióni emango botoa, EH Bildu EAJren aurretik geratu arren.

Haiek ikusi zuten aukera bakarra Urartan zela. Araizek ere esaten zuten Nafarroan lehendakariorde-tza bat nahi zutela. Aierdi NBBko burua bai, hura jarri da batean.



Ikusten genuen Gipuzkoan EAJren 1986ko zatiketa larriaren ondorioak gaintitzen eta jendea biltzen ari ginela»

«Jauzi bat eman nahi dugu. Ez gara hasiko autogobernuzuritzen. Jauzia erabakitzeo eskubidearen bermea da»

«EAJk eta ezker abertzaleak, presarik gabe, bakegintzan eta estatus politikoan akordio bat behar dute, luzerako»

Azken hamarkada hauetako ibilbidearen ondorio bat da, eta hori ezker abertzaleak ikusten du edo... Ez noa Iruñeko-eta aurreikuspenak egitera, baina bere indarra handitzeko aukera izateko kultura politiko aldatu beharra du. Errespetuan oinarritu behar da.

Duela bi urte hasi zenituzten EAJ-Sortu bilerak. Zertan dira?

Batzuetan martxa bat hartzen da, baina besteetan korapilatu egiten gara, ez dugu asmatzen. Lehen aipatutako bi gai estrategiko horietan adostasuna behar dugu.

Prozesu baterako Euskal Herriko hiru esparruak aintzat hartzen dituzue EAJk eta EH Bilduk. Ez da adostasun makala.

Baina nola eman behar ditugu pausoak? EAJk eta ezker abertzaleak, presaka ibili gabe, akordio bat behar dute, luzerako.

EAJk EAEn ez al du nahi lehendabizi PSERekin adostea, gero besteie eskaintzeko?

Horiek formulak izaten dira. Ona litzateke, abertzaleen arteko akordioaz aparte, Madrilen eragina izan dezakeen indar batekin ere adostea. Baina hobea, zuzenagoa eta eraginkorragoa izango da lehenik herri honetan sinisten dugunok ados jartzea, eta gero eskaintza Madrilen dagoenari. Niretzat garrantzitsuagoa da hori.

Konstituzioa erreformatzeko Kongresuaren bi heren behar dira. PP da gaur egun lehen indarra. Zer panorama dator?

Iluna. **Europara joz, Ortuzarrek esaten du Europan nazio izatea dela EAJk nahi duena. Zer da Europan nazio izatea?**

Europar subjektu politiko izatea. Baina nazio librea bazara, ezin zara egon estatu batek ordezkatuta. **Zergatik ez duzue erabiltzen estatu hitza?**

Sabino Aranak EAJren sorreratik hala esan zuen... Europan nazio bazara eta benetan nazio izatea aitortua izateko, estatu egitura behar duzu. Subiranotasun osoa edo

autogobernu osoa izatea ona bada Frantziarentzat edota Luxemburgorentzat, zer demontregatik izango da txarra guretzat? Guk herritarrengana horrekin iritsi behar dugu, eta gauzak ondo egiten dakigula frogatuz ere bai, geure etorkizuna irabazi egin dugula eta hura erabakitzeo eskubide osoa dugula erakutsiz.

EAERI buruz ari al zara? Herri batez ari naiz, eta hango hiru esparruetako batek independentzia prozesu batean aurrera

egiterik baldin badu, egin dezala, ezin du bere martxa gelditu beste baten zain egoteko. Gero ikusiko da gainontzeko uztarketa nola egingen den.

Nafarroako aldarrikarekin baldintzak sortzen ari al dira?

Barkosak eta ezker abertzaleak mezu egokiak eman dituzte, eta, orain, nafarren konfiantza sendotu eta, ahal dela, zabaldu egin behar da. Zer helburu estrategiko jarri dituzte EAERA begira? Bizkarrak eman beharrean, elkarlana hasitea, errespetutik abiatuta. Modu txukuna eta naturala da, eta emango ditu fruituak. Hori ezin dugu txikiatu.

Eta gizartearen egitekoa? Esana duzu lokaruta ikusten duzula. Gehiago esango nuke abertzaletasuna aहितuta dagoela. Ahalagin desberdinak egin izan dira, ilusio-ak sortu (Lizarraga-Garazi), baina hori gero desagertu egin da. Kementa badago, indarra badago, eta

jakin behar dena da bideratzen. Adibidez, jende bat ari da esaten Gure Esku Dago-ren ekinbideen ondoren zer bait etorriko dela. Gure Esku Dago-ren lana aipatzeko eta aitortzeko da. Egin beharriak babesteko zuela han lortutakoa. Eskema hura dena pikutara joan zen. Orain esaten dute borroka armatua bukatu dela eta ez dagoela aitzakiarik. Haiek borroka armatua ezinbesteko tresna eta estrategia bezala jarri zuten etekin politikoa lortzeko, eta orain zelaia libre al dago? Borroka armatua zer da, pertsionaria bat jaistea? Ba al dakigu zer ondorio izan dituen herri honetan? Nola fida gaitzake hale-taz? Zergatik fidatu behar dut nik hainbeste urtean borroka armatua ibili direnekin, orain arte ez badute sinistu politikan? Politikan sinistea ez da borroka armatua alde errespetuan, eta giza eskubideetan, errespetutik abiatuta. **Ezker abertzalearen belaualdi berri baten eske al zaude?**

Ez. Beste batek ere esan dezake EAJk ere sar dezala belaualdi berri bat.

Zuk GBBko presidentetzan segitzeko asmorik bai? Nahikoa denbora egin dut nik hemen... 1987an hautatu ninduten aurreneko aldi GBBko presidentea, eta harrezkero nago, tartea batean salbu [2000-2004].

Beraz? Ikusiko dugu. Lehenik, EBB berri-tzea tokatuko da, eta hori datorren urte hasieran izango da, urtarillan edo otsailan. Ondoren izango da herrialdeen txanda.

Joseba Egibarren elkarrizketaren bertso luzeagoa lehi nahi izanez gero, bistatu Berriaren ataria: www.berria.com